

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabagiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazinoarteko akordioa hartu zanetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diran, munduko herrialde gehienek ez dabe genero bardintasunik lortu, eta gitxi batzuk bakarrik jarri edo bete dabez sexuen arteko bardintasunean asmo handiko helburuak.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteau nahi dira, bardintasun-arrakalak gitxitzeko asmoagaz, arrakala horreek gizartearen zati handi batentzat handitu diralako eta, batez be, emakumeentzat. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko hartu-emon eredu askoz be inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzak gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, alkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jarrean be.

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, bardintasunaren inguruko hainbat gai salatzeke eta eskatzeko mobilizetan ari dira. Esaterako, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-bardintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpena ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

Emakumeek politikan eta eragakiak hartzerakoan bardintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Halandabe, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzeak mugatua izaten jarraitzen dau, alderdi formaletako erabagiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaitan, administrazio publikoan, enpresa pribauetan, unibertsidadean, sindikatuetan, alkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Martiaren 8 honetan, emakumeen nazinoarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuaeren eredu batetik abiatuta. Era berean, bardintasun arloan erabagiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz be zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemoiletik. Emakumeek erabagiteko guneetan parte hartzeko daukiezan baldintzak aldatu behar doguz.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezko da:

- botere-espazioak partekatzea eta lagatzeak eragozten dabezan **erresistentziei eta inertziei** aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaia apurtu behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi interseksionalagaz emakumeen presentzia bermatuko dabezan neurriak jarritz.
- **zaintza-lanen banaketa erantzunkidean** aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa dalako eta emakumeen gankargak herritartasun osoa gauzatzea mugatzen daualako.
- prekarizauta dagoen **zaintza** eta bestelako lan feminizauen **sektore profesionala** balioan jarrea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.
- emakumeek lidergoetan daukien konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen daben **estereotipo eta aurreritxiei** aurre egitea.
- **emakumeen aurkako indarkeria**-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa be.

- **lidergoan jarduteko praktikak eta moduak** deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak; zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu barik; emakumeen eta boteretik bazturtutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mespretxatzen dabenak; eta talde-lana baloratu barik.
- **emakumeen eta nesken eskubideak** ikuspegi interseksionala, barritua, erradikala eta eraldatzailea daukan agenda feministaren erdigunean jartea, emakume horreekin boterean daukien baztarketa sistematikoari aurre egiteko eta desbardintasun-arrakalak murrizteko.

Zeberriko Udalean, gure eskumenen markoan, emakumeen lidergoa sustatzeko eta boterea bardintasunean gauzatzeko baldintzak errazteko **konpromisoa hartzen dogu**, ondorengo konpromisoak geureganatuz:

1. Emakumeei zuzendutako prozesu parte-hartzaileak egiten hastea, udalerrriaren beharretara egokituta.
2. Udalerriko emakumeei ahalduztzeko programak eta baliabideak emotea.
3. Mugimendu feministaren eta emakume-alkarteen parte-hartzea sustatzea udalerrian, erabagi partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.
4. Bardintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen daben eremu guztietan, emakumeek euren aniztasunean daukien parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.
5. Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango daben politikak egiteko informazioa emoteko.
6. Politikan sartzen diran emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduztze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, alkartasun- eta aliantza-sareen bitartez, esaterako, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk.
7. EUDELi eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposatu daiazala, emakumeen parte hartzeari eta erabagiteko gaitasunari buruzko ikerketa bultzatu daiala eta ordezkariak orekatu baterantz egiten diran aurrerapenak babestu daiazala.